2016ko urria 164. zbk

ARTZAPE

Getariarron Topagunea

MAIALEN LIZARRALDE, MEMORIA BERRESKURATUZ LANDA-EREMUKO EMAKUMEEN AURRERAPAUSOAK

CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Eusko Jaurlaritza/Mikel Arrazola

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

ITXASPE TABERNA
T 943 504 420
Nagusia, 8 - 20808 Getaria

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA 17
14 07 04

portu
nagusia 12
20808 getaria
943 140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

KAIA-KAIAPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

18-19 Klik batean

24-25 Elkarrizketa: Maialen Lizarralde

4 Zuen txokoa
6 Elan Euskadi
7 Eskubide Sozialen Karta
8 Artzapetik begira
9 Historiaren katebegiak
10 Harritarten txutxupeka
11 Urritza Aisialdi Taldea
12 Inglix pitinglix
13 Getariako Hitza eta Txikiegia Agian
14 Iritzia
15 Petriletik ikusmiran
16 Salberak Itsaskabrari
17 Toponimia
18-19 Klik batean
20-23 Erreportajea: Landa-eremuko emakumeak
24-25 Elkarrizketa: Maialen Lizarralde
26 Agenda

2016ko urria 164. zbk

ARTZAPE

Getariarron Topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Telefonoa] 943 000 548
[Helbide elektronikoa] artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Jon Ander de la Hoz eta Iure Eizagirre.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Anuska Esnaola, Beñat Gereka, Cesar Blanco, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Iturzaeta Herri Eskola, Iñaki Requejo, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxue Alberdi, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes
[Publizitatea] artzape@topagunea.com / 943 000 548
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.
GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk
diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Atal hau herritar, talde zein elkarteek zuen ekarpenak egiteko da. Zuen iritzi, gutun, argazki, zorion-agur (bazkide ez direnek 4€), esker on edota agur hitzak argitara ditzakezue. Testuek gehienez 180 hitz izan ditzakete eta ez da irainik onartuko. Ekarpenak jasotzeko azken eguna hilaren 23a izango da, ez da bermatzen egun hori baino beranduago jasotako lanak argitaratzea. Testuak artzape@topagunea.com helbide elektronikora bidali edo Txeruko postontzian utzi daitezke.

Herrerietako itsasaldeko txakur-kakak

— Mekaueeeen! Oaine zapalduyat txakur-kaka, Aitor!

— Izarrai beira jungo hintzan ta ze nahi den ba! Earra hasiera eman dion gaurko korrika sayuai!

Orain dela gutxi izan nuen "zoritxarreko" gertaera bati dagokio hasierako pasarte labur hau. Zoritxarreko edota zorioneko esan behar al nuke? Izan ere, batzuk diotenez txakur-kaka zapaltzeak zorte ona ematen du. Ba hara, orain arteko kaka zapaltze guztien ondoren ez zait loteria tokatu, kiniela asmatu edota inolako sorpresa positiborik gauzatu.

Serio jarrita, Herrerieta kaleko itsasaldeko begiratokiak txakur kakatoki bat dirudi. Begiratokia esan dut, halaxe baita lurrera begira-begira joan behar baituzu, Gaztetapez gozatu beharrean. Uda amaitu berri den honetan, hondartzara egin dudan joan-etorri bakoitzean mina zelai batetik nindoala zirudien, oina non jarri kalkulatuz.

Ez zait gaizki iruditzen txakurra haize frexkoa hartzera ateratzea begiratoki eder honetara. Hori bai, animalia honek hustuketa egin ostean, hori jasotzea jabeak egin beharreko zerbait da. Nahiz eta ni txakurzalea izan ez, primeran iruditzen zait lagun gisa edukitzea, paseoak emanez edota berarekin jolastuz. Bere ardurak ere baditu ordea: albaitariarengana eramatea, behar bezala elikatzea, kakak jasotzea... Azken aldian penagarri dago Herrerietako begiratoki hau.

Benetan leku paregabea da eguna amaitu ostean, eseri eta lasai itsasoari begira egoteko, surflariak ikusteko, txibitan zenbat ari diren behatzeko... Begiratoki honek leku zoragarria izaten jarraitzeko, denon ardura da garbi mantentzea!

Uxoa Irigoien

ZAINTZA EGUNAK

Azaroan ez du zaintza egunik izango.

FULDAIN FARMAZIA

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

Getaria
AUTOESKOLA

Herrerieta
23 behea

Tel: 943 140 301

ORDUTEGI MALGUAK - EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

elan euskadi
ONGD - GGKE

Haiti: geografiaren zati?

Hortzmugari begiratzean kilometroak hegan eginez gero zer topatuko genukeen amesten dugu.

Ezezaguna iruditzen zaigu munduaren mapa geografikoa oroituz. "Non dago Haiti?", galdetzen diogu geure buruari; hara nonbait, Kuba edo Jamaika inguruan, Miami delakoa ere gertu omen du. "Nolakoa izango da Haiti?". Hau zailagoa agian, bagoaz mugikorreko Google erraldoira eta zenbait argazki ikusten ditugu... Hara, zer nolako argazkiak, harriturik lagunari deitzen diogu ondorengoa galdetuz:

— Lagun, zergatik bizi dira Haitin egurrezko txabola ximeletan?
— Ez dut ideiarik lagun- erantzuten digu.

Hiru egun pasa dira eta buruak ez dit bakean uzten. Informazioa topatu nahian koadrilako kultoari deitzen diot, eta erdi haserre ondorengoa esaten dit:

— Nolatan galdetzen didazu horrelakorik, ez zenekien 2010ean urakana jasan zutenik?
— Ez, ez nekien. *Hormiguero* ikusten ibiliko nintzen...
— Eta orain gutxi Matthew urakana igaro zenik?
— Ezta ere, telebistan ez dut ezer ikusi.
— Aldrebesa eta barraskiloa zu, lotsarik ez duzu!- Madarikazioa, honek ezin du horrela jarraitu.

Etxera iritsi eta telebista pizten dut... 800 hildako, 1'6 milioi pertsona janari, ur eta lotarako lekurik gabe. Kolera berriz ere protagonista, 25.000 kasu inguru.

Haitin 10'9 milioi biztanle dira, 62.600 desplazatuak eta 36 kanpamentutan bizirauten dute 2010etik. 500.000 biztanle naturaren enbata apokaliptikoen biktima izan daitezke, eta biztanleriaren %60 pobrezian bizi da. Gainera, *Transparencia Internacional* erakundearen iazko ikerketen arabera, Haiti, 167 herrialdetatik 158.a da korrupzio kasuetan. Kolerak 10.000 hildako eta 800.000 infektatu utzi ditu. Etxeen %70a teilaturik gabe geratu da.

— Gizajoak...- telebistan *zapping* egiten jarri eta kalera noa zerbeza bat hartzera.

Ezagutza geografikoa gerra tresna bat izan daiteke; geografia gure munduaren irudi izateaz gain, pertsonen bizileku da, kokapen zehatz eta ezberdin bat dutenen bizilekuak dira, existentzia propioarekin.

Existentzia geografiaren zatia da, existentzia duina geografiarekin batera irakatsi behar da ezinbestean ikastoletan.

Matematikako irakasleak batuketa eta kenketak irakasterako orduan ez du geografia banaketarik egiten, Mongolian, Filipinetan eta Txinan gauza bera direlako. Zer gertatzen da geografiarekin? Ezagutza baztertzailea bihurtu dela. Konturatu zareten bezala, Europa maparen erdialdean dago. Zergatik? Existentzia duinagoa dugun ustea dugulako.

Geografia irakaskuntzak elkartasun, transmisio-bide eta existentzien berdintasunerako helburua izan ezean, existentzien arteko gerra besterik ez du piztuko.

Haitik, geografiaren zatia izanik, existentzia propioa du eta batugarriak izan behar dute. Ez konfrontazio gune.

— Non dago Haiti?
— Haiti pauso txikiz badoa aurrera, zenbait erakunde internazional eta bertako jendearen indarrez. Haitik, Dominikar Errepublikak lagundurik, zenbait ikastola eta ospitale eraiki ditu. Bestalde, Jamaika, Kuba eta Miamik milaka igeltsero eta doktore bidali ditu. Finean, geografiaren helburua elkartasun berriak ematea izan behar da.

Geografia ikasketak, kulturizazio prozesu bat behar du izan, enpatia zubi.

Itsastarrentzat etxe atsegina

ARTZAPE-ko aurreko alean, Historiaren katebegiak atalean, Kofradia Zaharra deitzen diogun eraikinaren sorrerako kontuak jorratu ziren artikulu benetan interesgarrian. Bada hari horri eutsi eta tira egingo diogu, gaur egunera iritsi arte.

1964. urtetik aurrera aterpetxe funtzioa alde batera utzirik, soilik arrantzaleen kofradia izatera pasatu zen eraikina. Dena den, 1999. urtean kofradia eta lonja berriak inauguratu zirenetik pixkanaka Kofradia Zaharra erabiltzeari utzi zitzaion eta ordutik makina bat urte pasata, bistan da eraikinaren gaur egungo egoera: burnizko hesiz inguratuta, pusketaka erortzen, tamalgarri...

Idazki honen helburua honenbestez gaia plazaratzea da, herrian debate bat zabaltzea. Zer pasatzen da kofradiarekin? Zergatik dago egoera penagarri horretan?

Gure taldearen izena Eskubide Sozialen Karta denez hor doa ba karta egunkarietan egiten duten tankeran: "Karta irekia Udala eta Kofradiari". Galdera gehiago dauzkagu jakintzak baino eta horrexegatik erantzun bat beharrezkoa ikusten dugu.

Izan ere ezeren mugimendurik ikusten ez denez, inpresioa eman lezake asmoa kofradia erortzen uztekoa ote den (Txirritak hargin andaluziarrari botatako bertsoaren amaierak dioen bezala, *bera eroriko dek ez akiyok bultza*), gero esateko "begira, eraikuntza hau bota beharra dago, arriskutsua da, ezinezkoa da konpontzea, etab". Ondoren, bertan, "oso modernoa" eta etekin ekonomikoa emango duen eraikuntza berri bat egiteko.

Esan dezakegu kofradia herriko ondarea dela eta babestu behar dugula: herrian duen esanahiagatik, Getariaren (arrantzale herri baten) kultura delako, herritar askorentzat duen balio sentimentalagatik, zer izan garen erakusten digulako (ohiturak, bizimodua), edifizio bezala estetikoki polita delako... Guk geureari ez badiogu balorerik ematen...

Turismoak ere badu zer esana gainera. Getariara etortzen diren bisitarien (izan euskaldun, espainiar edo txinatar) lehenengo aipuak kofradia aurretik pasatzean hauexek izaten baitira: "zergatik dago horrela?, ze pena...". Izan ere bisitaria oro har ez doa (goaz) eraikuntza eta kale berrien bila. Xarmadun herri eta eraikuntzak ikusi nahi ditu (ditugu), parte zaharra, herrien esentzia eta identitatea adierazten, gordetzen dizkiguten gauza eta lekuak ikusi nahi izaten ditugu.

Funtsean guk uste dugu bere itxura mantenduz Kofradia Zaharra berritu, mantendu eta herrirako onuragarria den erabileraren bat eman beharko litzaiokeela.

Honen harira, egin daitekeenaren adibide ederra urrutira joan gabe, Azpeitian daukagu: San Agustin Kulturgunea. Berau eliza izatetik kulturgune izatera pasa zen. Hogei urte zeramatzan erlijio lanetarako erabili gabe, alabaina, izerdi eta buruhauste askoren ondoren eraberritu, egokitu eta herriko kulturgune bihurtu dute. Bertan ekitaldi ugari antolatzen dituzte (kontzertuak, hitzaldiak, erakusketak...) taberna eta jatetxea ere badituelarik. Era berean herriko kultur sormena bultzatu eta zabaltzen du.

Badago zer pentsatu eta egin. Kofradiko aurrealdean dagoen armarriak hauxe dio: *Itsastarrentzat etxe atsegiña*. Aurrera begira egin dezagun ba itsastarrentzat edo/eta herritarrentzat etxe atsegin bat.

XABI INSAUSTI

Kriminalak eta galtzaileak

Ez nuen Balentziagari buruz hitz egin nahi, baina berak baietz eta baietz. Liburu batean Balentziagaren patu tragikoaren inguruko konturen bat irakurri omen zuen. Itxuraz, 'Balentziaga' behin baino gehiagotan joan omen zen Vienara Freud bisitatzera bere krisia leuntzeko.

Behin, halako bisita batean, Hundertwasser arkitektoarekin egin zuen topo, lagun komunak zeuzkaten eta. Hundertwasser oso tipo erradikala zen eta Balentziagaren irudi aristokrata ez zuen batere gustuko.

Balentziaga, bere burua justifikatzen saiatu zen: aitortu zien lagunei bizitzak egoera horretara eraman zuela, baina bera izatez oso behetik zetorrela, oso herrikoia zela. Bere herria oso txikia zela, baina kutsu frankista eta klerikal izugarria zuenez ez zegoela berarentzat lekurik. Horregatik joan behar izan zuela kanpora eta orain Parisen bizi zela.

— Parisek salbatu nau- izan ziren bere hitzak.

Orain, "desklasauta" sentitzen zela, bereziki Espainiako aristokraziaren "lotsak" tapatu behar zituela, baina horrela behintzat "*a salvo*" sentitzen zela. Errepublikanoa izaki, aristokraziak errespetatu egin omen zuen; eta Parisen ere elizaren moraletik *a salvo* sentitzen zen.

— Nire herrian Juan Sebastian de Elcano da munduko kriminal handienetakoa. Orain frankistek heroi bihurtu nahi dute. Baina pentsa garai hartan nola ibili behar izaten zuten bizirauteko. Egun batean nirekin berdin egingo dute: heroi bihurtuko naute. Dena da fartsa eta hipokresia…

— Ni galtzailea sentitzen naiz —jarraitu zuen—, eta historiaren gogoan horrela geratzea nahi dut. Norbaitek ni heroi bihurtu nahi banau, bere "lotsak" ezkutatzeko izango da. Ni jadanik ez naiz Balentziaga izango, bere asmakizuna baizik. Baina egiak hanka motzak ditu…

"Oso minduta dagoen gizona da", komentatu omen zuen gero Hundertwasser-ek. "Asko sufritu du, dudarik gabe".

Eta guztiek zuten kriminalak eta galtzaileak heroi bihurtzen direneko herri hori ze herri ote den jakiteko jakinmina…

Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

GETARIAKO ABERE HILTEGIA (I)

Garai batean animaliak etxeetan hazi eta hiltzen ziren, baina denborarekin guzti hori aldatzen joan da apurka. Nekazaritza-guneetan txerribodekin mantendu da gehien, baina gaur egun oso toki gutxitan egiten dira. Izan ere, gaur egun haragia non-nahi eros dezakegu, gure beharretara egokituz.



Herri eta hirietako haragi eskaria bideratzeko, XIX. mendean hiltegiak eraikitzen hasi ziren. Herriguneko etxeetan abereak hiltzea, jadanik, ez zen egokitzat hartzen, higiene kontuak zirela medio, osasunarentzat arriskutsua izan zitekeelako. Getarian 1889koa da hiltegiari buruzko lehen aipamena. Urte horretan, herria haragiz hornitzeko ardura zuen Jose Elosu herriko hiltegi publikoaren egoera txarraz kexu da, bertan egin beharreko garbiketa-lanak egiteko, ur hornidura eskasa dela ohartaraziz. Hau dela eta, behin-behinean, abelburuak Francisco Enbilen etxean hiltzeko baimen eskaria onartzen dio Udalak.

Udal hiltegiaren egoera tamalgarriaren aurrean, 1901ean udal batzorde bat eratu zen hiltegi berria eraikitzeko kokaleku egokia aztertzeko. Batzorde horrek Gaztetape izendatu zuen hiltegi berria eraikitzeko herriko toki egokiena bezala, itsasoko aireak abelburuak freskoago mantentzen lagunduko zuela argudiatuz. Hau horrela, herriko albaitariak eta haragi ikuskatzaileak, batzordekideekin batera, "Marcobe" (egungo Malkorbe) izendatu zuten Gaztetapeko gunerik egokiena, baina toki honek ez zuen perituen oniritzia lortu. Azkenik, herrigunean zegoen Katrapona enparantza aukeratu zen hiltegi berria egiteko.

Tokirik egokiena Katrapona-andia izenekoa zen, baina bertan ontziola bat omen zegoen kokatuta. Ontziola hori udal lurretan zegoen eta, bertan kokatzeko baimena lortu zuenean, Udalak lurzorua herritarren ongizaterako beharko balu eraisteko aginduko zuela hitzartu zen. Egoera honek ez zuen herriko bizilagun guztien onarpena lortu. Alde batetik hiltegia herrigunean kokatzea osasunarentzat arriskutsua izan zitekeela eta herri arrantzale batean



ontziolaren beharra aldarrikatzen zuten ontziolako jabe eta lagunak zeuden. Hauek tokirik egokiena Malkorbe zela defendatzen zuten. Bestalde, Udalaren erabakia babesten zuten herritarrak zeuden.

Azkenean, Udalaren erabakiak aurrera egin zuen eta, Donostiako Domingo Ezeiza maisuak eginiko planoa jarraituz, hiltegi berria eraikitzeko obren esleipena Juan Eizagirre Orioko bizilagunaren aldekoa izan zen. Eraikuntzak 5.401,63 pezetako kostua izan zuen Udalarentzat eta 1903ko otsailerako amaitua zegoen. Hiltegi berriko araudia urte bereko martxoan ezarri zen.

Asmo berriak

Ikasturte hasiberri honetan Iturzaetako neska-mutilok asmo berriak ditugu. Guraso, irakasle eta ikasleen artean eskolako arlo ezberdinak hobetu nahi ditugu, besteak beste, eraikina, harremanak, jolastorduak, kezkak, ardurak... Horretarako, behatokia izeneko bilgunea jarri dugu martxan. Bilgune honetako partaideak honako hauek dira: Lehen Hezkuntzako gela bakoitzeko bi ordezkari, guraso elkarteko ordezkaria eta irakasleen ordezkariak. Beraz, 18 pertsonaz osatutako taldea da.

Talde honen eginkizuna gelako proposamenak jaso, eztabaidatu eta nola erantzun erabakitzea izango da. Ondoren, gelako ordezkariek gelakideei hitz egindakoaren berri emateaz gain, beharrezkotzat ikusten dutena jasoko dute eta hurrengo bilerara eramango dute.

Hau aurrera eramateko hilabeteko azken asteazkenetan elkartuko gara goizeko 9:45ean. Ikasturte honetako bileren egutegia ondorengoa izango da: irailak 28, urriak 26, azaroak 30, urtarrilak 25, otsailak 22, martxoak 29, apirilak 26 eta maiatzak 31.

Aurtengo lehenengo gaia aitona-amonengandik ikasi duguna gogoratuz hastea erabaki da. Izan ere, etxe guztietan aitona-amonengandik asko ikasteaz gain, esperientzia ezberdinak bizi izan ditugu, besteak beste: babarrunak zabaltzen, janari goxo-goxoa prestatzen, ogia egiten, baratzeko lanak egiten... Eta gaixo gaudenean, nork ez ditu aiton-amonen mimoak jasotzen? Edo nork ez du aiton-amonekin parkean jolastu? Horregatik, apainketa tailerrekoek mural bat egin dute *Aiton-amonengandik ikasi dut...* izenburua idatziz eta murala eskolako sarreran kokatu dute. Beraz, Iturzaetako gela guztietan gaiaren inguruko hausnarketa egiten ari gara eta bertatik ateratako oroitzapen guztiak ikastetxeko sarreran elkarbanatuko ditugu.

Baina askok galdetuko duzue, "eta nolatan hau guztia?". Bada, iazko esperientzia kontuan hartu dugulako. Ikasleok galdetegi bat bete genuen iaz eta egunerokotasunean hainbat eragozpen topatu genituen. Haiei irtenbidea eman nahian, lehentasunak ezarri eta gutun bidez Udalarekin harremanetan jarri ginen. Gaia aztertu ondoren, eskolaren sarreran patineteentzako aparkalekuak jartzea lortu genuen. Ikusi al dituzue? Politak, ezta?

Eskolako atarian jarritako murala.

Iazko proiektuari esker, patineteentzako aparkalekua dago eskolan.

Gaztelekuaren bide berria

Azaroaren hasieran ekingo dio Gaztelekuak bere bide berriari, proiektu berritzaile batekin. Izan ere, Getariako Udala akordio batera iritsi zen Urritza Aisialdi Elkartearekin eta ondorioz, herriko zenbait begirale martxan hasi gara, gaztelekua guztiz indarberritzeko asmoz.

Dagoeneko hasi gara lanean herriko gaztetxoekin, ondorengo helburuak lortzeko asmoz; adin desberdineko gazteen artean elkarbizitza sustatzea, gazteak teknologiak sor dezaken menpekotasunetik urruntzea, euskal kultura eta hizkuntza zabaltzea, elkarlanaren garrantziaz ohartzea, baina batez ere aisialdiaz disfrutatu eta ondo pasatzea dira gure helburu nagusiak. Horretarako, zenbait ekintza, txapelketa, irteera eta hitzaldi antolatu ditugu, horiek guztiak LH6 eta DBH4 bitarteko gazteei bideratuta.

Abentura berri hau hasi besterik ez da egin,baina pozik eta gogoz gabiltza lanean, eta gazteak ere gustura egoteko aukera paregabea dela iruditzen zaigu. Gaztelekua ostiral, larunbat eta igandetan egongo da zabalik, eta baita jai egunetan ere. Beraz, animatu gurekin asteburutako arratsaldeak disfrutatzera!!!

Proiektu indartsua bada ere, Urritza Aisialdi Elkarteak ez ditu herriko haurrak alde batera utzi nahi, beraz, haurrei zuzendutako urteko ekintzak eta udalekuak beraien bidea jarraituko dute, orain arte egin duten bezala. Horregatik, haurrak ere gurekin tarte ederrak pasatzera gonbidatzen ditugu. Ekintzei buruzko informazioa zabaltzen joango gara pixkanaka.

Beraz, haur, gaztetxo zein gazte, laster ikusiko gara aisialdiaz disfrutatzen!!!

AGUR BERO BAT.

Urritza Aisialdi Taldeak landutako proiektuaren xehetasunak ezagutzeko aurkezpena egingo dute urriaren 29an, larunbata, gaztelekuan. 18:00etan izango da hitzordua.

UXOA IRIGOIEN

"*If you are healthy, you are wealthy*"

"Osasuntsu bazaude, aberatsa zara"

Mendiek hori-marroixka koloreko berokia janztearekin batera, badatoz lehenengo mukiak, eztulak,sukarrak... Urtaro aldaketak guztioi eragiten digu, era batera edo bestera. Laster ikusiko ditugu adineko pertsonei zuzenduriko gripearen aurkako txertoen iragarkiak, katarroa ekiditeko gomendioak non-nahi... Badaezpada ere, osasun arloaren inguruko eta garai honetako gaixotasunei buruzko hiztegiarekin natorkizue, hobe ez baduzue erabili beharrik baina, *just in case*...

Vocabulary

English	Pronunciation	Euskara
Doctor	Doktor	Medikua
Nurse	Nurs	Erizaina
Patient	Peixient	Gaixoa
Illness	Ines	Gaixotasuna
Cold	Kould	Katarroa
Cough	Kaf	Eztula
Mucus	Mucus	Mukiak
Injection	Inyekxion	Txertoa
X- ray	Ex rei	Erradiografia
Pills	Pils	Pilulak
Syrup	Sairup	Jarabea
Headache	Jedeik	Buruko mina
Sore throat	Sor throt	Eztarriko mina
Prescription	Preskripxion	Errezeta
Hospital	Jospitol	Ospitala
Community health centre	Komiuniti helth zenter	Anbulategia
Treatment	Tritment	Tratamendua
Temperature	Tenpetxa	Sukarra
Healthy	Helthi	Osasuntsu

Expressions

English	Pronunciation	Euskara
I feel sick.	Ai fil sik	Gaixorik sentitzen naiz.
Blow your nose!	Blou yor nous	Atera mukiak!
Take care of yourself.	Teik ker of yorself	Zaindu zure burua.
I don't like hospitals.	Ai dont laik jospitols	Ospitalak ez zaizkit gustatzen.
Go to the chemist.	Gou tu de kemist	Joan zaitez farmaziara.
Take the medicine!	Teik de medizin	Hartu medikamentua!

Nork bidalita?
Artzapeko lantaldea

ELORRIO

Gaur hona dakargun hitza ez da, berez, hitz solte arrunt bat, esapide bat baizik. Adin batetik gorakoei ezaguna egingo zaie, gainera; ez, beharbada, gazte eta gaztetxoei.
Garai bateko Getariako hizkeran oso ohikoak ziren honako esaldi hau eta antzekoak: "Elorrio dek etxera joaten haizenean [elorriyo'ek etxea juteaizenian]" (gaztelaniazko ordainetan: "*vaya la que te espera cuando vayas a casa*"). Edo "elorrio ikusi behar dik [elorriyo ikusi biar dik]".
Ez da gaur egun asko entzuten/irakurtzen den esapidea, baina, Getarian ez ezik, Euskal Herriko mendebaldean ezaguna da nonbait. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*k argibide hau dakar: "batez ere Bizkaian erabiltzen da, *nekea*, *estualdia* adierazteko. *Elorrioak ikusi. Elorrio heldu zaio*".
Aipagai dugun esapide honen gainean inork gehiago jakin nahiko balu (Zergatik aipatzen den Elorrio eta ez beste herri bat), *Orotariko Euskal Hiztegi*ra jo besterik ez du ("elorrio ikusi" sarrera): http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=340&lang=eu&sarrera=elorrio&xeh=2).

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com* - era ezagutzen dituzun hitzak.

AMAIA IRAZABAL

ORRI TXURIA

Orri zuriak beti du xarma,

betegarritasun sentsazioa,

zuritasun baketsuaren barea.

Ez da ezer, eta dena izan daiteke.

ESATEKO

Ez daukat ezer inportanterik esateko.

Esan daitekeen ezer ez da inportantea.

Inportantea den ezer ezin esan daiteke.

Baina, hala ere, esaten saiatuko naiz.

JOXI ERAUSKIN

Norbait edo zerbait izan behar hori

Autoan nindoala *Fast Car* entzun nuen, Tracy Chapmanen abesti zoragarrienetako bat. Bere letrak kontatzen digu gaztaroan pobrezian bizi eta ametsak betetzeko gogoan oinarritutako istorio bat. Abesti honetan neska baten bizitza da kontagai, eta zein zaila egiten zaion hainbat arazo gainditzea: eskola uztea bere aita alkoholtzalea zaintzeko; eta nola bere amak erabakitzen duen aitarengandik banantzea.

Azkenean alabak ere ihes egingo du bere mutil-lagunarekin, aita mozkorraren ondoan bizi duen errealitate beltzetik aldentzeko itxaropenarekin. Supermerkatu batean lana aurkituko du, eta bizitza hobeago bat espero du... "aske sentiarazten ninduen. Zerbaiten parte nintzela sentitzen nuen. Bizitzan norbait izan nintekeela, behingoz...", horrela jarraitzen du kantuak. Iragana ahaztu eta etorkizun hobeago baten itxaropena baizik ez du amesten.

Hori da kontua. Denok gabiltza ihesean modu batera edo bestera, zezenari adarretatik heltzea ez da erraza izaten. Halere, badago ihes egiteko modu bat pobreziagatik, miseriagatik, tratu txarrengatik, gerragatik, bortizkeriagatik eta kanpoko giroak ez duelako laguntzen. Bizi baldintzak egokiak ez direnean gizakiak ohikoa du aldaketa horiek egitea, oreka bila, osasuntsu mantenduko bada. Egoera okerrean zaude, sufritzen eta aurrera begiratzen duzu, eboluzionatu. Hori da gizakiaren lege naturala lurrean.

Alabaina, okerrena da norberak bere buruarengandik ihes egitea. Bere burua eta bere errealitatea ez onartzea eta kanpotik ezartzen dizkiguten modak eta ereduak besterik gabe onartzea. Gaur egungo gizarte kapitalista honek presaka bizitzera kondenatzen gaitu, eta horrek inkontzienteki bultzatzen gaitu gure barneko ahotsa entzun ordez kontsumoko medioek markatzen diguten bidea jarraitzera.

Erroturik dago jendearengan garenari uko egin edo ez onartzea eta ez garena izan nahi izatea edo amestea, gure buruarekin etengabe borrokan arituz. Gizakia inoiz ez dago konforme, ez da asetzen, beti zerbait gehiago nahi du. Askok dena eta denetik eduki arren boteretsua izan nahi du, arrakastatsua, aberatsa, gauza guztietan onena eta lehena. Zerbait izan beharra daukagu, norbait, pertsona izateari garrantzirik eman gabe. Lehiakortasun basatian murgiltzen gara, inora eramango ez gaituen bide maldatsuetatik.

Osho, Indiako filosofo eta mistikoak zioen moduan, "...txikia zarenetik denak saiatuko dira norbait izan zaitezen. Gurasoak, irakasleak, apaizak, agintariak... denek bultzatuko zaituzte norbait izatera, bestela zure bizitza alferrikakoa izango dela sinetsiaraziko dizute. Ordea, gizakia baizik etzara eta zeu izan behar duzu. Ez daukazu zertan beste norbait izan beharrik. Horretan datza sinpletasuna: gure izatearekin pozik egon eta ez beste bat izan nahian itsutu. Edonor zarela ere beti egongo da zure aurretik norbait".

Horregatik kontsumoko gizarte honek ez gaitu une batean ere bakean uzten. Hainbat interesengatik ez gaitu ikusi nahi askatasunean eta geure kabuz pentsatzen, zeren eta arriskutsua da beren interesentzako. Arrazoi horrengatik inork ez du gizagaixo bat izan nahi.

Eta amaitzeko, Bob Dylanek, azken nobel saridunak, *Gotta serve somebody* abesti ospetsuan honela dio: " izan zintezke etsaia, izan zintezke jainkoa...ospetsua, aberatsa.... edonor zarela ere norbait zerbitzatu beharko duzu beti, bai horixe, norbait zerbitzatu beharko duzu beti. Izan zintezke bankaria edo tebista kate bateko zuzendaria, itsua edo herrena, apaiza edo abokatua, baina norbaiten zerbitzaria izango zara beti. Izan zintezke...".

20. ZENBAKIA
2003KO UZTAILA

ERREPORTAIA: Danbor soinuak

GURE TXERUREN 25. DANBORRADA

Uztaila izaki, Salbatore jaietan zuen begia aldizkariak. Urte berezia zen, Gure Txeruk 25. aldiz antolatuko baitzuen danborrada. 335 getariarrek parte hartuko zutela eta herria hori, urdin, berde eta laranjaz jantziko zela iragartzen genizuen. Gainera, karroza ere berezia izango zen, lehenengoaren itxura izango zuelako. Karrozaren gainean joango ziren damak helduak izango ziren. Hain zuzen ere, danborradako parte-hartzaileen afariarekin amaituko ziren jaiak.

Jon Illarramendi

BERRIKETAN: Pello Iribar Sorazu



ITSAS-TRESNEN ERAKUSKETA

Pello Iribar Sorazuk beti izan omen du itsaso zaletasun eta irakaslelanetan aritu arren, itsasoarekin lotutako tresnak bildu zituen urteetan. Horiekin erakusketa jarri zuen herrian, bost ataletan banatuta: kofradiaren historia, bisigutarako erabiltzen ziren tresna zahar eta berriak (*palangrea*), orduko arrantza, antxoa eta atuna. "Nire asmoa urte osoan irekita egongo litzatekeen museo didaktiko bat irekitzea izango litzateke", adierazi zuen Iribarrek.

Jon Illarramendi

KULTURA: Liburu eta diska azoka

LITERATURA ETA MUSIKA AHOLKUAK

Gure Txeruk udaro antolatzen zuen liburu eta diska azoka aitzakia hartuta hainbat gomendio egin zituen Zigor Saizarrek kulturako txokoan. Musikan Pantxoa eta Peio, Gatibu, *Maitasun baladak* eta Betizu Taldearen diskak; ikus-entzunezkoetan *Heidi mendian* eta *Karramarroen uhartea*; eta literaturan *Alkimista*, *Euskal Idazleen Ipuin Erotikoak*, *Lur bat haratago*, *SPrako tranbia*, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*, *Zorion perfektua*, *Agur Euzkadi* eta *Eulien bazka*. Bateren bat etxean oraindik?

Zigor Saizar

IÑAKI REQUEJO

Lapurreta

"*Neguan bazirudik natura hil eta berekin batera usainak ezkutatzen direla*" diok Zigor, ez ote autentizitatearen isla?

Egia duk garaiko usainak erakargarriak direla, baina balantzan jarri jende kopuruarekin: zer nahiago, lasaitasuna eta neguko freskura ala udako usain eta kotxe ilarak?

Etxe parean ditiat Akerregi-Txiki eta Gaintza txakolindegiak eta bidegurutze batean bezala sentitzen nauk uneoro. Egia duk txakolinak dirua eta lana ematen duela, bizia ere. Baina klasista duk, oso. Getaria klasifikatu dik, kanpoan Getaria Txakolinaren sinonimoa duk. Ze demontre, txakolinarekin erlaziorik ez dugunok ez dugu getariar identitaterik ala? Produktua baino, helburuak ikertu behar ditiagu. Produktua arroxa, beltza... izan daiteke, baina ze helbururekin?

Itsutasuna nabarmentzen diat negozioan, globalizazio ekonomikoaren zati izan nahi grina usaintzen diat. Edozer egiteko prest ikusten ditiat negozio buruak, saltzeko justifikazioa medio. Arriskutsua Zigor, oso...

Egia duk negozio buruak neoliberalismoaren sarean kateaturik zeudekela eta beraien errua ez dela, baina... turismo erreminta bihurtu duk txakolina eta bertako langileak, bitartekari. Egun, ez duk nabarmentzen txakolin ona egitearen nahia, ez eta upeltegiak herritarrei eskaintzea. Txakolindegien izaera Pariseko kale *chic*-etan saltzeko egina zagok. Ez besterik... sinestezina dirudi...

Bai, Zigor, nik maite diat txakolinaren usaina iraila eta urrian Getaia-Zarautz paseoan korrika nabilen bitartean, moiko aromak bezala... baina, Itzuruneko haitzak enbazuan dauden bezala dago Getaria txakolinarentzat. Txakolinak ez du merezi Getariako denominazio onarpenik, marketing eta salmenta basatien sarean kateaturik baitago. Izan dezala Gipuzkoakoa... ez du getariarra ematen eta...

Alperrik sevillanoek esatea Getariak usain berezia duela, getariarrok Getaria maitatu eta gozatzeko aukerarik ezean.

ZIGOR SAIZAR

Usainak

Ai, Iñaki, Iñaki, *XXI. mendeko jainko malapartatua* Txin-Txin ahaltsua... Bai horixe! Dirua ekartzen ditek *I love Getaria* kamisetak janzten dituzten horiek, *Getariako uheran* esapide autoktonoa bularrean eraman ordez eta, noski, Basque Country-ra etorri dituk eta ez Euskal Herrira. Txakolinari ere laster Basque-wine deituko ziotek *cool* edo modernoagoa delakoan...

Getariako (Getariakoa??? edo Zarauzkoa edo Zumaiakoa edo Aiakoa edo Olabarriakoa edo Oñatikoa...) ardo zuria (zuria??? edo arroxa edo beltza edo burbuiladuna...) aipatu dedan honetan, hik ere nire antzera sudur luze xamarra daukak eta, Getariatik Zarautzera saltaka hoala usainduko huen iraila eta urrian zehar mahats usain gozoa?

Sentimendu kontrajarria izaten diat, ordea, Iñaki: alde batetik, Getariak dituen usain bereziekin gozatu egiten diat: Arzakek iragarkian dioen bezala, "garaiko usainak" izaten dizkik gure herri maiteak: udaberri aldean antxoaren *perfume* sarkorra (*tautalei* hainbeste gustatzen zaiena), udan parrillan erretako arrainarena eta udazkenean mahastietatik bildutako mahatsarena. Neguan bazirudik natura hil egiten dela eta berekin batera usainak ezkutatzen direla.

Kezkatu eta goibeltzen nauk, aldiz, Askizura bidean Garate gainetik, mendi-bideak autopista bihurtu direla ikusita; oinetakoak basaz zikinduta egon beharrean, porlanaren masa grisak osatutako plataforma sortzen zaidanean hankazpian. Edo han goitik, getariarron Everestetik, behera begira jarri eta, San Anton mendia eta herriko etxeak kenduta, beste guztia Californiako, Burdeoseko edo Errioxako edozein bailara bezala bihurtu dela konturatuta.

Bai, Iñaki, dirua ematen dik turismoak, txakolinak, arraiak... "Tronuen Jolasak" telesailak ere bai Zumaian, baina Itzuruneko hondartzan haitzak *enbazuan zitxaben ta grigrauk*...

Sevillanoek esaten duten antzera, Getaria tiene un olor espezial.

ANDRES ALBERDI

ETXETXO ETA BIZKARRAGA

San Prudentzio auzoko bi baserri entzutetsu ditugu gaurkoan ere idazgai.

ETXETXO. Ondo argia eta agerikoa da izen honen etimologia: *etxe* izena + *-txo* atzizki txikigarria. *Etxe txikia* esan nahi du, beste modu batera esanda.

Gaurko izen honen lehen osagaia den **etxe** oso arrunta da euskal toponimian eta abizenetan —arruntenetakoa agian—, bai lehen elementu modura (Etxeberri[a], Etxeandia, Etxaleku, Etxegoien, Etxabe, Etxaniz, Etxarte, Etxezarreta, Etxebeste, Etxegarai…), bai bigarren elementu gisa ere (Arretxe, Artetxe, Ibarretxe…).

Bigarren osagaia ere —***-txo*** (Iparraldeko aldaera: ***-to***)— oso erabilia da toponimian: Aizpurutxo, Basotxo, Bordatxo, Errotatxo, Errekatxo, Iturritxo, Olatxo, Portutxo (hala izena zuen euskal balea-arrantzaleek Ternuako portu bati jarritakoak) dira, besteak beste, horren agergarri. Iparraldean, Etxeto izena erabiltzen dute Etxetxoren ordain.

BIZKARRAGA *(Bizkarra)*. Bi osagai ditu honek ere: *bizkar* + *-aga* toki-atzizkia.

Bizkar hitzak muino, tontor, gainalde esan nahi du (gaztelaniaz, *loma*); menditxo baten gainaldea, gainalde zabal samarra (gorputzeko *bizkarra*ren tankerara). Gorputz-atalen hedatze metaforiko hau oso arrunta da toponimian, eta hemen *bizkar* bezala, *buru* eta *oin* ere sarri ageri dira bestetan; esate baterako, *buru*, gaintxoa adierazteko (Mendiburu, [H]aranburu), eta *oin*, behealdea (Oña, Oñati).

Bizkar dago beste izen hauetan ere: Bizkarra, Bizkarrondo, Bizkargi, Zuazubizkar, Bizkarguen, Biscarret… Euskal Herritik kanpora ere, euskararen aztarnaren seinale, Frantzian adibidez, badira *bizkar* elementua daramaten izenak: Biscarose, Biscarrués eta gisakoek. Hizkuntzalari gehienak, bestalde, ados daude *Bizkaia* izena bera ere *bizkar* hitzetik datorrela.

Sarritan aipatu izan dugu ***-aga*** atzizkiak tokia adierazten duela: Gorostiaga: gorosti-tokia, Areizaga; (h)aritz-tokia; Gaztañaga; gaztain-tokia; Larrañaga: larrain-tokia; Mendiaga: mendi-tokia…

Bizkarra, azkenik, Bizkarraga izenaren ahozko moldea da, euskal fonetikan sarri gertatzen den hitz-galeraz sortua: *-aga* atzizkiaren bokal arteko *-g-* galtzen da (beste hauetan bezala: dago > *dao*; eguzki > *euzki*), eta bi *a* horiek bat egiten dute: Bizkarra(g)a > *Bizkarra*. Gertaera bera zegoela esaten genuen hauetan ere, esaterako: Eitzaga > *Eitza* edota Zabalaga > *Zabala*.

Etxetxo.

Bizkarraga.

Beilatokia jartzearen bideragarritasuna aztertu dute

Zurrunbilo handia izan da azken asteotan herrian Eskualtxetaren etorkizunaren inguruan, "filtrazio baten bidez", Eskualtxeta Bizi-Bizirik mugimenduak Udalak eraikinean tanatorioa egiteko asmoa zuela jakin eta gero abiatutako ekintzen ondorioz. Udala ezkutuan ibili izana eta tanatorioa eraikineko gainerako zerbitzuekin bateragarri ez izatea salatzen du mugimenduak.

Udala informatzen saioan landu zen gaia eta Udal Gobernuak azaldu zuenez, beilatokia jartzearen proiektua "bideragarria" den aztertu "bakarrik" egin dute. Gainera, beilatokiaren esanahia azaldu zuten: "ez da tanatorioa, beilatokiak ez du zerbitzu integrala ematen (tramitazioa, kutxa, prestaketa...)". Hileta zibiletan agur-zeremonia emateko eta zibil nahiz erlijiosoetan zeremonia aurreko egonaldia egiteko lekua litzateke.

Beraien hitzetan, parte-hartze prozesuetan agertu zen hileta zibilak egiteko aukera, eta horrek "beilatokia dakar berarekin". "Udalaren aurrekontuarekin ezinezkoa litzateke horrelako proiektu bat eta Eusko Jaurlaritzak bide horretan diru-laguntzak eskatzeko aukera zabaldu zuenean, ezinbestekoa zen proiektu bat aurkeztea diru-laguntza lerro horretan sartzeko".

Proiektuan, beilatokirako lehen Eskualtxetan haurtzaindegia zegoen lokalaren erdia erabiltzea proposatu zen, besteak beste, "finantzazioagatik eta herrian bertan egonda autorik ez delako behar bertaratzeko". Urriaren 14an jaso omen zuten erantzuna: Eusko Jaurlaritzak 90.000 euroko aurrekontuaren %80a finantzatuko luke. Gainerako 18.000 euroak Udalak jarri beharko lituzke.

Diru-laguntzari esker, proiektua bideragarria dela ondorioztatu du Udalak baina azaldu zutenez, horrek ez du esan nahi egingo denik. Izan ere, proposamena egin zuten bileran, gaia delikatua dela kontuan hartuta: datozen asteetan egingo diren aurrekontu parte-hartzaileetan herritarrei horren inguruko iritzia emateko aukera zabaltzea. Ohiko bideak landuko dituzte horretarako: arlokako bilerak elkarteekin, bilerak auzoetan eta fitxa baten bidalketa etxeetara herrian ikusten dituzten beharrez galdetzeko.

Herritarrek beilatokiaren beharrik ez dagoela adieraziko balute, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza itzultzeko aukera legoke, prozesu parte-hartzailea epe horren barruan egiteko asmoa baitago. Beraz, hiru aukera omen daude oraindik mahai-gainean: proiektua bertan behera geratzea, aurrera jarraitzea edo lekuz aldatzea.

Eskualtxetan bertan jarritako hainbat kartel.

Beste prozesu parte-hartzaileak

Datorren urtean martxan jarri nahi diren beste prozesu parte-hartzaile batzuk ere zehaztu zituzten, hala nola, *Elkano 500*, parte-hartze prozesuen ordenantza eta kaleetako terraza eta antzekoen ordenantza.

Elkano 500 hiru urteko proiektua izatea aurreikusten dute eta arlo ezberdinetako herritarrekin diseinatu nahiko lukete, "herritarrek beraiena" sentitzea nahi dutelako.

Horrez gain, Gerra Zibila eta oroimen historikoari lotuta, Aranzadirekin gauzatuko duten proiektuaz aritu ziren. 1936tik 1945era izandako giza eskubideen urraketak ikertuko dituzte hiru urtetan. Lan horren lehen urratsa testigantzak biltzea izango da eta horretarako bulegoa irekiko dute azaroaren 3tik 25era Alhondigan. Ostegun eta ostiraletan egongo da zabalik 10:00etatik 14:00etara goizez eta 16:00etatik 19:30era arratsaldez.

Euskarari bultza Nafarroa hegoaldeko produktuekin

Errigoraren 2016ko udazkeneko kanpaina martxan da eta azaroaren 2 eta 3an helduko da Getariara. izena emateko mahaia jarriko baitu Getariako Giza Eskubideen Kartak Berdura plazan.

Aurten bi saski egongo dira aukeran: saski zuria eta beltza. Lehenak txokolatezko gutiziak, pasta ekologikoa, arroza, polboroiak edo teilak, madaria almibarrean, eskalibada, pikillo-saltsa, ardo beltz ekologikoa, ozpin ekologikoa, melokotoia almibarrean, orburu-bihotzak, pikillo-piperrak eta zainzuriak ditu. Bigarrenak, berriz, oliba-olioa, mahats-zuku ekologikoa, potxak, melokotoi-marmelada, arbendolak, borraja ekologikoa, pikillo-piper mamia, ardo beltz ekologikoa, ozpin ekologikoa, melokotoia almibarrean, orburu-bihotzak, pikillo-piper osoak eta zainzuriak.

Saski bakoitzak 50 euro balio ditu eta %25a Nafarroako hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da.

Aurtengo kanpainaren irudia. /Errigora

Martxan dira uren banaketaren bigarren faseko obrak

Hilaren hirugarren astean hasi zen herriko euri uren eta ur zikinen erabateko banaketarako obren bigarren fasea. Lanek lau hilabete irautea aurreikusten da eta fase honekin amaituko dira iaz garaiotan abiatutako lanak.

Obrak hasi baino egun batzuk lehenagotik Elkano kalearen paretik portura arte doan errepide zatian errei bakarra dago erabilgarri eta semaforo batek ematen du txanda. Gainera, egun hauetan lanak egiten ari dira portuko irteera eta Askizu eta San Prudentzio auzoetarako sarbidearen arteko mendi magalean beraz, bi semaforo daude metro gutxiren barruan.

Euri uren eta ur zikinen lanak Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Getariako Udalak finantzatuko dituzte. Horrela, 287.872,49 eurotan esleitu dizkiote obrak Construcciones Otegi-Gaztañaga enpresari. Hasierako aurrekontua 467.000 euro ingurukoa aurreikusten zen.

Ibilgailuak herriko sarrerako semaforoan.

Oso ezberdina ikusten du kaleko eta baserriko emakumeen bizimodua, lotuagoa azken hauena.

Testua eta Argazkiak
IURE EIZAGIRRE

Landa-guneetako emakumeak

GARATZEN DOAN EREMU BATEKO BIZIMODUA

Nazio Batuen Erakundeak 1995ean izendatu zuen urriaren 15a Landa-eremuko Emakumeen Nazioarteko Egun. Gune horietako emakumeek egiten duten lana ikusaraztea zuen helburu. Aurten, eguna aitzakiatzat hartu eta inguruko landa-eremuetako emakumeak nola bizi diren ezagutzen ahalegindu gara.

Itsasoari begira baina mendiz inguratutako herria da Getaria. Biztanleriaren %11,77 bizi da lehen sektoretik eta Eustaten arabera, 51 nekazaritza ustiategi zeuden 2009an; 681 hareatako lur-eremua hartzen zuten. Datuen atzean aurpegiak daude, emakumeenak kasu askotan, herriko zenbaketa zehatzik ez badago ere.

Urte luzeetako ohitura izan da emakume eta gizonek lan egiten duten ustiategiak azken hauen izenean egotea, eta ustiategietatik soldata bakarra aterata, honek bakarrik kotizatzea. Hori aldatzeko, besteak beste, onartu zuen Eusko Legebiltzarrak Emakume Nekazarien Estatutuaren lege proiektua iaz. ENBA nekazaritza sindikatuaren iritziz, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategien jabe edo jabekide izateko araudia "aurrerakada izan zen lehen sektoreko emakume eta gizonen berdintasunean, batez ere, baliabide ekonomiko, lur, nekazaritza ustiapen eta horrek dakartzan irabazi eta aukera guztiak eskuratzeari dagokionez". Araudiaren aurreko azken datuek ziotenez, EAEn nekazaritza ustiategien titular ziren emakumeen portzentaia %32 baino gutxiagokoa zen.

Erakundeez gain, gizarte-garapenak eta egunerokoak ekarri ditu aldaketak landa-eremura. Herriko hainbat baserritako emakumeekin egon gara erreportaje hau egiteko, guztiek ez dute izen-abizenez agertu nahi izan baina hizketaldietan azaldu digute beraien bizimodua. Batek bere amona-eta ez zirela etxetik ateratzen gogoan du, "gizonak bai, feriara; emakumeak ez". Eta urte gutxiko aldaketaren erakusle, ezkontzako 50. urteurrena ospatzera etxetik atera nahi izan ez eta 60. urteurrena familia guztiarekin jatetxe batean ospatu zuen amona.

Emakumeak gaur egun gehiago ateratzen direla ere azaldu digu, askotan haurrak eskolara eramateko, eta horrek beste harreman batzuk sortzen dituela. Hala ere, oso ezberdina ikusten du kaleko eta baserriko emakumeen bizimodua, lotuagoa azken hauena, astelehenetik igandera egiten dutelako lan.

Halako loturez eta baserriak eragindako neke psikiko eta fisikoez aritzeko, eta elkarren artean harremana izateko sortu zuten, hain zuzen ere, Hitzez baserriko emakumeen elkartea eskualdeko bost emakumek, Aian. Urteekin asko ugaritu dira kideak eta iaz Emakunderen Berdintasunerako Saria jaso zuen.

Baserritik bizitzeko belaunaldi berria

Baserrian bizitzea eta baserritik bizitzea ez direla gauza berdina argitu digute. Baserrian bizi diren askok kanpoan ere egiten dute lan baina baserritik bakarrik bizi direnek ba omen dute presio gaineratu bat, "eguraldiaren eta lurraren menpe" egon behar dute.

Gainera, diru-sarrerak ez dira finkoak, batetik produktuak urte-garai bati lotuta daudelako eta bestetik ekoizpena aurrera ateratzeko inbertsioak aurretik egin behar izaten direlako, makinerian adibidez. Hori horrela, administrari lanak ere egin behar izaten dituzte emakumeek baserri askotan.

Hala ere, gazte batzuek bizibidea ikusi dute landa-eremuan eta belaunaldi aldaketa gertatzen ari da, dela baserrietan, abeltzaintzan, artisautzan edo landa-turismoan.

UXUNE AREIZAGA - USOTEGI BASERRIA

Usotegi baserriko alabetako bat da Uxune. Gurasoen erretiroaren aurrean baserriaren kargu egitea erabaki zuen duela lau urte. Gurasoak eta aitona-amonak baserritik bizi izan ziren: esne-behiak, mahastiak eta baratza izan zituzten. Aita baserriko lanetan ibiltzen omen zen gehiago eta ama, berriz, baserrian eta etxean. Gaur egun ardiak, behiak, mahastiak eta baratza dituzte baserrian.

Garaiekin batera gauzak aldatzen ari direla uste du: "Emakumeok indarra eta garra beti eduki dugu baina egiten dugun lana lehen baino gehiago ikusten da. Hala ere, iruditzen zait, garai honetan eta sektore honetan ere, emakume batek gehiago demostratu behar duela gizon batek baino".

Horretarako ere lotua da baserriko lana. "Autonomoak gara eta hau ez da lantegi batean bezala, egunean zortzi ordu egin eta bazoaz. Hemen eguna argitzen denean hasten zara eta eguna iluntzen denean utzi egiten duzu ze bukatu ez da egiten". Berari egokitu zitzaion kanpoan lan egitetik baserrira itzuli eta han ere lan egin beharra, kaleko lana utzi eta buru-belarri baserrian hasi zen arte.

Gustura dago egindako apustuarekin eta gainerako emakumeak animatzen ditu horrelakoetara. "Hau azkenean bizitzeko era bat da ez lanbide bat bakarrik. Hemen bizi zara, lanarekin bizi zara eta gustatu egin behar zaizu". Baserria bizitzaren parte bezala ere ikusten du: "Garbi daukat ni ezberdina izango nintzatekeela kalean jaio izan banintz edo beste bizimodu bat izan banu. Nire izaera mundu honen inguruan garatu da".

MARGARI ARANBURU - ARANO BASERRIA

Jaiotetxetik metro gutxira duen etxean bizi da egun Margari, baina bizimodua baserrian egiten du. Izekori laguntzen hasi eta ia ezkondu arte esnea banatzen aritu zen Zumaian. Aranora ezkondu zen nahiz eta gizonaren baserrira, Azpeitira, joateko aukera zuten: "Gurasoak etxean neuzkan eta norbaitek geratu behar zuen, gainera bost anaia ezkongabe zeuden".

Bederatzi anai-arrebetan gazteena izanda, baserriko lanez nahikoa libratu dela aitortzen du baina bestelako zereginak hartu ditu beregain, zaintzarekin lotutakoak asko. "Arropa eta jatorduak prestatzen ditut, medikuarenera joan behar denean lagundu, tentsioaren gorabeherak apuntatu, botikak ekarri behar direnean...", dio. Horrez gain, beharrezkoa denean, baserriko lanetan laguntzea egokitzen zaio: behiak heldu behar direla, zizare botika prestatu eta eman... baita hango faktura eta administrazio kontuak eramatea ere.

Anaiek baloratzen dute berak egindako lana "amorrarazten" badute ere. Batzuetan baina kanpokoengandik entzun behar izan ditu hitz desatseginak: "Behin lagun batek esan zidan nire koinatua ikusi zuela belarretan, ni ez ninduela ikusi esanez bezala. Ni ez ninduela ikusiko eta gainera ez joateko agindua nuela esan nion. Hala moduz begiratu zidan eta laguntzera baietz, joango nintzela baina badudala beste zereginik ulertarazi nion".

Azken 15 urteetan Askizuko aterpetxean ere egiten du lan: jendeak alde egiten duenean garbitzen eta hurrengoentzat dena prest uzten, eta ikasturtean zehar eskola-umeen taldeei gosariak eta afariak ematen.

AGURTZANE SUBIJANA - EGUZKITZA BASERRIA

Meagasko Eguzkitza baserrian jaioa, Agurtzanek etxean bertan ezagutu ditu abereak, aitak txerriak gizentzen zituelako. Berak ez zuen baserrian lanean geratzeko asmorik baina merkatuaren gorabeherek Ezkurtxerri enpresan sarrarazi eta lehen sektorean erabat barneratu zuten.

Etxean bi ahizpa izanda, han ez du gizon eta emakumeen arteko desberdintasunik ezagutu baina "inguruko baserrietan eta sektorean bertan goraipatua beti gizona da. Bera da langilea eta emakumearen lana pixka bat atzean geratzen da, nahiz eta, askotan, gaur egungo baserrietan gizona kanpora joaten den lanera eta emakumea gehiago geratzen den bertan, etxeko lanak egiteaz gain, baratzeko lanak, animalienak... egiten".

Sektorearen larritasunaz konturatu arren, "zorionez" gazteak topatzen ari dela dio, produktu bat egin eta proiektu batekin hasi direnak.

Merkatua, ordea, espezializatuagoa ikusten du: "Nik etxean ez dut ezagutu amak beti egin izan duelako lana kanpoan baina lehen baserritarrek hamar behi, etxean arrautzak jateko oilo batzuk, baratza... zituzten. Denetik egiten zen. Zertarako? Bizitzeko. Gero saldu egiten zen azokan edo beste nonbait, baina sektore bat zen". Orain, berriz, batzuk txerriekin aritzen dira, besteak behiekin, baratzean...

Eta jarduera horiek, bertako produktuak sortzeaz gain, inguruko parajeak garbi mantentzen laguntzen dutela dio: "Denok utziko bagenu, zelai eta mendi horiek larrez eta sasiz beteak egongo lirateke".

AITZPEA AREIZAGA - USOTEGI NEKAZALTURISMOA

Sarri turismoarekin bakarrik lotzen badira ere, legearen aurrean bete beharreko baldintzengatik dira, besteak beste, nekazalturismoak landa-eremuarekin lotutako negozioak. Izan ere, ezinbestekoa da nekazaritza-ustiapena dagoen lekuan kokatua egotea eta nekazaritza-arloko diru-sarrerak turismokoak baino handiagoak izatea, alegia, turismoak nekazaritza-ustiapenaren osagarri izan behar du. Horrez gain, badira izan beharreko plaza kopuruaren eta hauen neurrien inguruko beste hainbat baldintza ere.

Ongi dakizki horiek guztiak Aitzpea Areizagak, Usotegi baserriko beste alabak. Duela zazpi urte baserria bota eta nekazalturismoa egin zuten bertan. Baldintzak lehen arinagoak zirela dio baina gaur egun oso ondo kontrolatuta dagoela guztia. Eusko Jaurlaritza da araudia zehazteko ardura duena. "Baldintzak zorrotzagoak dira orain eta ondo iruditzen zait bestela mundu guztiak utziko luke baserriko egitekoa eta turismoan bakarrik ariko litzateke".

Baserriko lur eta animaliengandik lortutako produktuak aprobetxatzen dituzte turismo zerbitzurako eta bezeroek baratza eta mahastiekiko interes handia erakusten dutela dio. "Kanpokoentzat oso ezberdina da hau dena, gu ohituta gaude baina haiek produktu horiek supermerkatuan erosita bakarrik jaten dituzte".

Horregatik, etxeko leihoetatik baratza eta mahastiak ikusteaz gain, bertara eraman eta sortzen zaizkien galderei erantzuten saiatzen dira. Izan ere, gogoan izan behar da baserritarrek lehen, etxean libre zuten logela batean hartzen zituztela kanpotarrak, diru-kopuru txiki baten truke, beraien bizimodua erakusteko.

MAIALEN LIZARRALDE

"LANAK MEMORIA KONPARTITU BAT SORTZEN LAGUNTZEA NAHI DUGU"

Udalak eta Baketik Fundazioak 1960tik gaur egunera euskal gatazkaren barruan herrian izandako giza eskubideen urraketak eta gertakari traumatikoak ikertzeko hitzarmena sinatu zuten urriaren amaieran. Maialen Lizarraldek egingo du ikerketa eta informazio-bilketa fasean dago.

TESTUA
IURE EIZAGIRRE

Getarian izandako urraketak aztertzeko herritarrak beraien esperientziak kontatzera deitu zenituzten. Izan al da ekarpenik?
Momentuz ez baina uste dut txostenarekin aurrera joan ahala, bertan informazioa bildu eta elkarrizketak egiten hasten garenean, sor daitekeela ahoz-ahoko mugimendua jendea animatzeko.

Zein fasetan zaudete orain? Nondik nora ari zarete lanean?
Informazio-iturriak identifikatzeko fasean gaude. Jada eginda dauden txostenene analisia egiten ari gara ze orain arte ikerketa asko egin dira. Horietako hiruekin gabiltza gehien bat: bizitzaren eskubide urraketak jasotzen dituen Eusko Jaurlaritzaren Retratos txostena, motibazio politikoko gertaera guztiak jasotzen dituen Eusko Jaurlaritzaren 2008ko informe bat eta Euskal Memoriaren datu-basea.

Hemerotekak ere aztertu behar ditugu, urtero herrian zer gertatu den ikusteko. Horretarako Argituz elkartearen laguntza daukagu. Beraiek Errenterian horrelako txosten bat egin zuten eta nondik jo aholkatzen digute.

Aztertutakoarekin, nolako esperientziak topatu dituzu orain arte?
Denetik dago: guk dakigula bizitzeko eskubidearen hiru urraketa daude, ETAk eta Comandos Autonomosek hildako hiru pertsona; gero, osotasun fisiko eta psikikoaren kontrako urraketa bat dago, pertsona bati erretako kotxe batena; Euskal Memoriaren arabera bost tortura kasu daude; eta beste eraso bat, Josean Elola PSEko hautagaiari kotxean jarritako artefaktu bat. Azken hau uste dut Zarautzen gertatu zela baina Getariako hautagaia izateagatik jarri zioten eta barruan sartzen dugu. Hau dena bat-batean esanda ze hasiera-hasierako irudia da.

1960tik honako gertaerak bilduko dira. Zergatik urte hori?
Kontsentsu nahiko handia dago data hori jartzearekin, lege aldetik, Eusko Jaurlaritzan egin diren hainbat txostenetan, eta ETAren sorrerak historikoki beste garai bat markatzen duelako. Baina data bat jartzen dugu nonbaitetik hasi behar delako eta urte horren inguruan, garai aldaketa bat dagoelako. Ikusten bada urte batzuk lehenago zerbait oso esanguratsua gertatu zela, txostenean sar daiteke. Irekia da guztiz.

Zer egingo da bildutakoarekin?
Txosten bat egingo da eta espero dugu herrian hedatzea. Hau ez da datu estatistiko bat bakarrik, memoria konpartitu bat sortzeko ahaleginean balio izatea nahi dugu. Kontu hauek denen artean, ezberdinen artean, lantzea eta honekin bizikidetzari laguntzea.

Noizko egongo da prest?
Datu bilketa urtarrilera arte egingo da gutxi gorabehera eta txostenaren aurkezpena martxoan egin nahi dugu.

Herri mailan zein ondorio izan dezake eskuartean horrelako lan bat izateak?
Kontzienteago izatea. Alde batetik, zer gertatu zen ezagutzea. Orain arte bakoitza bere burbuilan bizi izan da tentsio handiko urteetan zehar eta agian ez dira ezagutzen kasu asko. Bestetik, jendearen irudi errealago bat izatea, jakiteko zer gertatu zen eta ze motatako sufrimendua pairatu duen jendeak. Uste dut hori inportantea dela.

> "Bakoitza bere burbuilan bizi izan da tentsio handiko urteetan zehar"

HARREMANETARAKO DATUAK:

605 718 297

m.lizarralde@baketik.org

Eskatzen bada, anonimotasuna mantenduko da.

Maialen Lizarralde Getariako Udaleko ordezkariekin. /Arg.: Urola Kostako Hitza

2016ko AZAROA

2-3 Asteazken-Ostegun
Errigorako saskiak eskatzeko izen-emate mahaia
Ordua: *18:00-20:00*
Lekua: *Berdura Plaza*
Antolatzailea: *Getariako Eskubide Sozialen Karta*

3 Osteguna
1936tik 1945era izandako giza eskubideen urraketak ikertzeko bulegoaren irekiera
Ordua: *10:00-14:00*
eta 16:00- 19:30
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Aranzadi*
Azaroaren 25era arte egongo da irekita bulegoa herritarrek beraien ekarpenak egin ditzaten.

11 Ostirala
San Martin Eguna
Askizuko jaiak
Programa izan orduko jarriko dugu ikusgai Facebookeko gure profilean.

13 Igandea
B/SS 52: Behobia-Donostia lasterketarako autobusa
Ordua: *07:50*
Lekua: *Autobus geltokia*
Autobusa Zarautzen geratuko da 08:00etan.
Getariako kiroldegian eman daiteke izena. Informazio gehiago eskuratzeko, berriz, 943890562 edo 675709893 telefono zenbakietara dei daiteke.

16 Asteazkena
***Crisis, deuda y salud pública* hitzaldia**
Ordua: *19:00*
Lekua: *Ulpiano Etxea*
Antolatzailea: *Getariako Gazte Asanblada eta Eskubide Sozialen Karta, "Euskal Estatua edukiz jantziz" egitasmoaren baitan*
Angeles Maestre sendagile eta politikariak eskainiko du hitzaldia. PCEko kide gisa, IUren sorreran parte hartu zuen Maestrek.

Enplegu publikoa: aurreiritziak eta ebidentziak
Ordua: *19:00*
Lekua: *Ulpiano Etxea*
Antolatzailea: *Getariako Gazte Asanblada eta Eskubide Sozialen Karta, "Euskal Estatua edukiz jantziz" egitasmoaren baitan*
Helena Franco Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza diputatu ohi eta EHUko irakasleak emango du hitzaldia. Bi hizkuntzatan izango da.

20 Igandea
Getariako Musika Bandaren kontzertua
Ordua: *12:30*
Lekua: *Salbatore Deuna eliza*
Antolatzailea: *Getariako Musika Banda*
Santa Zezilia Egunaren baitan antolatutako emanaldia.

22 Asteartea
Getariako Musika Bandaren kalejira
Ordua: *19:30*
Antolatzailea: *Getariako Musika Banda*
Santa Zezilia Egunaren baitan antolatutako emanaldia.

24 Osteguna
Katukale irakurle taldearen saioa
Ordua: *18:30*
Lekua: *Liburutegia*
Harkaitz Canoren "Beti oporretan" liburuaz hausnartuko dute.

25 Ostirala
Ipuin kontaketa. Amelie eta Xirrikituen jostunen saio musikatua
Lekua: *Liburutegia*
Antolatzailea: *Getariako Udal Liburutegia*
Haur zein helduentzat izango da saio berezi hau.

26 Larunbata
Alkate Txiki Eguna
Antolatzailea: *Guraso Elkartea*
Arratsaldetik aurrera tailerrak, txikien udal batzarra udaletxean, buruhandi eta txistulariak, afaria eta karaokea izango dira.

Cristobal Balenciaga Museoa

3-6 Ostegun-Igande
Ikastaroa- Tradizioa eta artisautza moda garaikideko sormen prozesuetan
Ordua: *10:00-14:00*
eta 15:30-18:30
Antolatzailea: *Balenciaga Museoa eta Estudios Yox*
Ikastaroaren ardatza ehungintza-sorkuntza tradizionalean erabilitako teknikak eta estetikak moda sortzeko prozesu berrietan erabiltzea eta prozesu berrietara egokitzea izango da.

20 Igandea
Familientzako tailerrak - Izan super diseinatzailea!
Ordua: *11:00-13:30*
Parte-hartzaileeik "Ikatza eta belusa: Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak herri-jantziari" erakusketa ikusi, eta kapa bat diseinatu eta egingo dute. Euskaraz izango da.

26-27 Lr.-Ig.
DIY Tailerrak - Kapela bat nola interpretatu eta sortu
Ordua: *10:00-14:00*
eta 15:00-17:00
Santa Katalina Egunaren harira egingo da, kapelak eskuz egiten ikasteko.

Saiazgetaria
HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa

T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

OSTOLAZA TALLERRA
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110 / 675 707 203
ostolazatallerra@gmail.com

ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK
680880905
676532067
GETARIA
www.eraberri.com

eskura
Fisioterapia zentroa
JOSUNE UCIN BERASALUCE
697961208

BABEXA
Getariako dendari elkartea

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz
Ekipo informatikoen salmenta
Mantenua
Informatika akademia
Webguneen diseinua
Urdaneta, 2 bajo · 20800 Zarautz
tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

ASKIZU
FAMILIA ETA TALDEENTZAT
ESKAINTZA BEREZIAK
943 83 36 41
www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	Zenbatekoa
4,3 x 4	12 euro
9 x 4	24 euro
13,6 x 4	36 euro
9 x 8	48 euro
13,6 x 8	72 euro
orri erdia	96 euro

Jarri publizitatea ARTZAPEN!!!

Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

BIDALI ZURE DATUAK:

artzape@topagunea.com-era

Txeruko postontzira

IZEN-DEITURAK:

HELBIDEA - HERRIA - P.K:

TELEFONOA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

KONTU ZENBAKIA:

BANKETXEA:

Urtean 25€ - Getariatik kanpora bidaltzea 30€